

AURKEZPENA

NANNER taldea gara eta eskaintzen dugun zerbitzua ETS-ak dituzten bikoteen bitartekaritza-agentzia bat da. Gaur egun, gaixotasun hauek dituzten pertsonak zailtasun handiak izaten dituzte bikotea aurkitzeko edo harreman sexualak izateko, hau da, maitasuna bilatzeko. Gure helburua talde honi bikotekidea aurkitzeko erraztasuna ematea eta kontzientziarioa lantzeko gizarte-mugimendu bat sortzea da.

Guk sortutako plataformari ETLove izena jarri diogu, aipatu dugun bezala ETS-ak dituzten pertsonentzat zuzenduta dagoelako, hain zuzen ere, amodioa lortzeko. Ideia hau kafe bat hartzen ari ginela bururatu zitzaigun, eta berehala jakin genuen arrakasta izateko eta gizarteko talde murriztu bati laguntzeko ideia bikaina izan litzatekeela.

Anne Pascual, Eider Gonzalez de Galdeano eta Nagore Gurrutxaga gara, Urretxu-Zumarraga Lizeoko bigarren batxilergoko ikasleak. Gure proiektuak arrakasta izan dezan espero dugu, gure bezeroen ongizatea bilatzen baitugu.

